

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2017-2018)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (7. or.) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. *Ez dakit zein den _____ erantzuna, eta _____ jartzen ari naiz.*
 - a) benetazko / urdurik
 - b) benetako / urdurik
 - c) benetazko / urduri
 - d) benetako / urduri
2. *Atzo prestatu genuen janaria mindu egin zaigu. Zein da MINDU hitzaren sinonimoa?*
 - a) Erre
 - b) Idortu
 - c) Galdu
 - d) Kixkali
3. *Gutun honen bidez _____ antolatzeke diru-laguntza eskatzen dizugu. Honako aukera hauetatik zein BAZTERTUKO zenuke?*
 - a) kultur-astea
 - b) kultur astea
 - c) kultura-astea
 - d) kultura astea
4. *Zein esalditan daude komak zuzen jarrita?*
 - a) Entzun Jauna, gure eskaria, berandu bada ere.
 - b) Nik, egia esan ez dakit, baina saiatuko naiz.
 - c) Gasteizen, nik dakidala, 210. 000 pertsona bizi dira, ez gehiago.
 - d) Egia da agian, ez dutela ekarriko.
5. *Emakumeak musuzapia atera eta zintz egin du. Aukeratu azpimarratutako esaldiaren baliokidea.*
 - a) ... eta dantza egin du.
 - b) ... eta mukiak ozenki eta indarrez egotzi ditu.
 - c) ... eta aurpegia igurtzi du.
 - d) ... eta agur keinu bat egin du musuzapiarekin.
6. *Ez hartu horrenbeste pisu, _____*
 - a) ez zaizula komeni.
 - b) ez zaizuna komeni.
 - c) ez zaizu komeni eta.
 - d) ez zaizu komenitzen.
7. *Gu isil-isilik _____, laster konturatu zen non geunden gu gordeta.*
 - a) egon ere
 - b) egonda ere
 - c) egoteagatik
 - d) egotearren
8. *Nik _____ da ordenagailu hori.*
 - a) daukadan bezala
 - b) daukadana bezalakoa
 - c) daukadana bezala
 - d) daukadan bezalakoa

9. *Eskerrak eman behar dizkeizut, Izaskun _____ ezagutu nuen eta.*
- zeure kasa
 - zeugan zehar
 - zeure bitartez
 - zeure kabuz
10. *Esaldi hauetako zein da DESEGOKIA?*
- Kafe katilu bat edan dut.
 - Katilu bat kafe edan dut.
 - Katilukada bat kafe edan dut.
 - Katilu bete kafe edan dut.
11. _____ *egositako ogia oso gozoa da.*
- Esnean
 - Esnez
 - Esnearekin
 - Esnetan
12. *Inguruan borrelako bortizkeria basatia _____ ikaratu egiten _____ .*
- sumatuagatik / naiz
 - sumatzea / nau
 - sumatzeak / nau
 - sumatzen / naiz
13. *Larunbatean zer egingo _____ galdetu behar diozu.*
- duenik
 - duela
 - duen
 - duenaz
14. *Zerrenda hauetako zeinetan dago hitz bat ongi EZ datorrena besteekin?*
- Hitzaurrea, aurkibidea, orria, atala.
 - Orkatila, ukendua, kokotsa, eskumuturra.
 - Umezurtza, alarguna, ezkondua, banatua.
 - Alkandora, atorra, zira, eskularrua.
15. *Gurekin bazkaldu obi zuen. Beste era batera esanda:*
- Gurekin bazkaldu ei zuen.
 - Gurekin bazkaldu omen zuen.
 - Gurekin bazkaldu bide zuen.
 - Gurekin bazkaltzen zuen.
16. *Zer egin zenuuten borrenbeste denboran?*
- Hantxe, jaten eta jaten.
 - Hantxe jesarri, jatea eta jatea.
 - Ba, hantxe jesarrita, jan eta jan.
 - Ba, hantxe jesarri eta jan eta jaten.
17. *Hurrengoetatik zein da zuzena?*
- Bai, etzi ikusten gara.
 - Bai, etzi ikusiko gara elkar
 - Bai, etzi ikusiko dugu elkar.
 - Bai, etzi ikusten dugu elkar.
18. *Filmaren erdian kanta zoragarri bat abestu zuen; amaieran _____*
- ere bai.
 - baita.
 - baita ere.
 - halaber.

19. *Haritz-egurrez eginiko mahai hori zuloz josia dago, _____ jota.*
- pipiarekin
 - pipiz
 - pipiak
 - pipikadaka
20. Zein da zuzena euskara batuan?
- Lan gutxi eta alferkeri asko.
 - Gauza bat esan behar dizuet.
 - Hainbat eskoletan ikasi dut.
 - Zulo handia duzu patrikean.
21. Aukeratu ezazu zuzen idatzita dagoen esaldia.
- Nolanahi ere ez duzu halakorik lortuko.
 - Nola nahi ere ez duzu halakorik lortuko.
 - Nola nahiere ez duzu halakorik lortuko.
 - Nola-nahi ere ez duzu halakorik lortuko.
22. Adierazi honako hitz hauetatik euskara batuan idazteko zein den DESEGOKIA.
- zihur
 - arkitekto
 - zuhur
 - borroka
23. Puntuazio-zeinuen dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- Bestalde, nik ez dut esan, sinesten ez dudarik, baizik eta, ez nagoela seguru.
 - Bestalde nik, ez dut esan sinesten ez dudarik baizik eta ez nagoela seguru.
 - Bestalde nik ez dut esan sinesten ez dudarik; baizik eta ez nagoela seguru.
 - Bestalde, nik ez dut esan sinesten ez dudarik, baizik eta ez nagoela seguru.
24. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?
- Hogeamairu orrialdeko liburu bat erosi dut
 - Hogeita hamairu orrialdeko liburu bat erosi dut
 - Hogeita hamahiru orrialdeko liburu bat erosi dut.
 - Hogeamahiru horriko liburu bat erosi dut.
25. *Halakoetan lerdea _____ gelditzen da.*
- deritzola
 - dirauela
 - diharduela
 - dariola
26. *Janzkeragatik igarri nion ondasun baten guztien jabea zela.* Aukeratu azpimarratutako hitzaren sinonimoa.
- Hantzeman
 - Antzeman
 - Hartu-eman
 - Egokitu
27. Zein zerrendak du OKER idatzitako hitzen bat?
- Ihardetsi, ihartu, saihets.
 - Sahats, oinutsik, ihintz.
 - Ihesi, jardun, igeltsu.
 - Intxaur, intziri, hatzamar.

28. Zer egingo dute bihar? _____
- Ez dakit nora doaz.
 - Ez dakit nora joatekoak diren.
 - Ez dakit nora joaten diren.
 - Ez dakit nora doazten.
29. *Arazoa jadanik konponduta dagoela esan didate, baina _____*
- egia ez delaren susmoa daukat.
 - egia ez deneko susmoa daukat.
 - egia ez dena susmoa daukat.
 - egia ez den susmoa daukat.
30. Aukeratu ezazu zuzena.
- Ez dut pisu zaharra alokatu; saldu egin dut.
 - Historikoki boterea hiru alor ezberdinetan banatu egin da.
 - Beste jatetxe batera joan egin ginen.
 - Lan hori burutzeko Berriako artikuluak bildu egin ditu.
31. _____ diru gehiago izan, _____ gehiago gastatzen dugu.
- Zenbat eta / hainbat eta
 - Orduan eta / orduan eta
 - Gero eta / hainbat
 - Gero eta / gero eta
32. *Zubaitz lerdena dago lorategian. Zein da LERDEN hitzaren sinonimoa?*
- Lehor
 - Lirain
 - Zatar
 - Kaskar
33. *Horiek ez dakit, baina zuek _____ ez diguzue partidua irabaziko. Zein da zuzena?*
- behinikbehin
 - behinipein
 - behinik behin
 - behinik-behin
34. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?
- Hondartzara joan beharrean, barrukaldera egin ziren.
 - Hondartzara joan beharrean, barrualdera egin zuten.
 - Ondartzara joan beharrean, barrukaldera egin zuten.
 - Ondartzara joan beharrean, barrualdera egin ziren.
35. *Andonik daraman auto hori norena da? _____*
- Andonirena berarena.
 - Andonirena berea.
 - Andoni berarena.
 - Andonirena bera.
36. *Nortzuk joango zarete zinemara? _____*
- Gugandik inor ere ez.
 - Gutako inor.
 - Ez da joango gutako inor ere ez.
 - Gutariko inor ere ez.

37. *Nortzuk joango zarete zinemara?*
 a) Gutariko inor ere ez.
 b) Gugandik inor ere ez.
 c) Ez da joango gutako inor ere ez.
 d) Gutako inor.
38. *Non utzi zenuen paper horiek? _____*
 a) Jakingo banuke, sikiera!
 b) Auskalo nondik daukadan!
 c) Nik al dakit, ba?
 d) Ez daukat ideiarik ere ez!
39. *Txikitan bazekien txistua jotzen eta orain ez. Zein da zuzena?*
 a) Txistua jotzea ahaztu zaio.
 b) Txistuaz jotzea ahaztu zaio.
 c) Txistua jotzen ahaztu zaio.
 d) Txistua jotzeari ahaztu zaio.
40. *Esaldi hauetatik zein da zuzena?*
 a) Zu ezik gu ere joan ginen.
 b) Zu ez ezik gu ere joan ginen.
 c) Zu izan ezik gu ere joan ginen.
 d) Zu ezezik gu joan ginen.
41. *Esaldi hauetako batean letra larriak ongi erabilia daude. Zeinetan?*
 a) Ekainetik lraileira oporrak izango ditugu.
 b) Gure herrira etorritako Frantziarrak joan dira.
 c) Ikastetxe horretako Zuzendaria ezagutu dut.
 d) Aita Santua erdi gaixorik omen dabil.
42. *Esaldi hauetako batean OKER bat dago ortografiaren aldetik. Zeinetan?*
 a) Aingeruen sexuaz izan zen eztabaida.
 b) Testu egokiak aukeratu behar dira.
 c) Ongi zaindu beharko genuke gelditzen zaigun oxigeno apurra.
 d) Marsismoaz idatzi zuen aspaldian Gotzon Garatek.
43. *Ez pentsa, _____ etorri naiz honaino _____.* Zein da zuzena?
 a) zeugatik / umeekin
 b) zugaitik / umiekin
 c) zeugatik / umiekaz
 d) zugatikan / umeakin
44. *Bukatu dugu, garai z hasten _____*
 a) baikara.
 b) bait gara.
 c) baigara.
 d) baitgara.
45. *Esaldi hauetatik zein da zuzena?*
 a) Ez naiz fidatzen politikarietaz.
 b) Ez naiz fidatzen politikariez.
 c) Ez naiz fidatzen politikariz.
 d) Ez naiz fidatzen politikaritaraz.
46. *Orain elizgizona izan arren, gaztetan _____ joaten zen.*
 a) neskarengana
 b) neskatara
 c) nesketara
 d) neskengana

47. *Boto gehien atera zuena izendatu dute* _____
- a) arduraduntzat.
 - b) arduradun bezala.
 - c) arduraduna.
 - d) arduradun.
48. Hitz hauetatik zein EZ dago euskara batuaren idaztarauen arabera idatzita?
- a) Joan-etorri
 - b) Apurka-apurka
 - c) Behin-betiko
 - d) Alfer-alferrik
49. *Ez da erraza iturria aurkitzea zenbait* _____
- a) herrietan.
 - b) tokietan.
 - c) hiritan.
 - d) kaleetan.
50. Honako esaldi hauetatik, zein dago zuzen idatzita euskara batuan?
- a) Txetxu etorrarazi dut.
 - b) Txetxuri etorrerazi diot.
 - c) Txetxu etor erazi dut.
 - d) Txetxuri etor arazi diot.

ASKOTARIKO ITEMAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (13. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA:

Gini indizearen zuloa

Errenta-banaketaren ezberdintasunak neurtzeko erabiltzen da Gini indizea. Ehun urte dituen koefiziente honek herrialde jakin batean errenta banaketa nolakoa den esaten du, 0 eta 1 bitarteko balioak emanaz. Berdintasun osoko herrialde batean 0 balioa hartuko luke eta desberdintasun osoko herrialde batean, 1; baina, errealitatean, tarteko balioetan mugitzen da. Oso baliagarria da konparazioak egiteko: herrialdeen arteko desberdintasunak alderatzeko edo herrialde jakin baten desberdintasun mailaren joera aztertzeko.

Gini indizearen ekarpena oso garrantzitsua izan da: hankaz gora jarri ditu ohiko Barne Produktu Gordinaren arabeko rankingak. BPGk errenta maila neurtzen duen heinean, herrialdeen batez besteko errenta mailarekin lotuta dago, eta, horrenbestez, pobrezia mailarekin. Desberdintasunak, ostera, banaketarekin daude lotuta. Herrialde oso txiroetan desberdintasun handiak egon daitezkeen bezala, errenta maila altuko herrialdeetan desberdintasun handiak ezkuta daitezke.

Gizartearen desberdintasuna islatzen du Gini indizeak, baina ez du ezer esaten gizartearen barruan gertatzen denaz. J. G. Palma ekonomialari txiletarra ohartu zen muga horretaz. Herrialdez herrialde biztanleriaren muturrekin zer geratzen zen aztertuta, fenomeno honetaz jabetu zen: munduko herrialde guztietan klase ertainak aberastasunaren zati berdintsua bereganatzen du; erdia, alegia. Datuekin frogatu zuen ezberdintasunaren muina muturretan dagoela. Hau da, gakoa aberastasunaren beste erdiaren banaketan dago: gaztaren beste erdia nola banatzen den gizartearen % 40 pobreenaren eta % 10 aberatsenaren artean.

Hego Ameriketako herrialdeetan errenta-desberdintasun handiagoak daude herrialde nordikoetan baino. Baina bi eskualdeetan klase ertainari dagokion aberastasuna antzekoa da. Aldiz, aberatsenen eta txiroenen gaitasunak oso desberdinak dira herrialde batean eta bestean.

Ñabardura hori oso baliagarria zaigu, politika publikoak ebaluatzeko bidea ematen duelako. Palmak argi ikusten du Txilen gobernuak desberdintasunak murrizteko saiakerak egin dituzten arren, % 10 aberatsenak daukanari tinko eutsi diola.

Horrengatik desberdintasuna oso gutxi murriztu da. Ezker berriak arrakasta lortu badu, gutxieneko soldadari eta familia-poltsari esker pobrezia murriztu duelako izan da. Baina desberdintasunak murrizteko ezinbestekoa da politika publikoak % 10 aberats horretara zuzentzea: egiturazko zerga erreformatzea, zergen iruzurra sakon ikuskatu eta zigortzea eta paradisu fiskalei amaiera ematea.

Aiala Elorrieta Agirre
ARGIA (2017)
(moldatua)

GALDERAK:

1. Zertarako balio du Gini indizeak?
 - a. Herrialdeen errenta ehun urtez banatzeko.
 - b. Errentaren banaketak eragindakoa neurtzeko.
 - c. Errentaren desberdintasunak zuzentzeko.

2. Testuaren arabera, zer baieztapen da egia?
 - a. Barne Produktu Gordinak pobrezia neurtzen du, errentaren banaketaren bitartez.
 - b. Gini indizeak argi utzi du Barne Produktu Gordinaren sailkapena okerra dela.
 - c. Errenta maila gorabehera, herrialde guztietan egon daitezke alde handiak.

3. J.G. Palma ekonomialariaren arabera, gizarte-desberdintasunen arazoa...
 - a. klase ertainari zor zaio, aberastasunaren erdia hartzen duelako.
 - b. pobreenen eta aberatsenen arteko aberastasunaren banaketan oinarritzen da.
 - c. herrialdearen arabera da; errenta nola banatzen den da gakoa.

4. Palmaren ikerketatik ondorio hau atera daiteke:
 - a. gobernuak ez dute nahikoa egiten desberdintasunei amaiera emateko.
 - b. politika ezkertiarak lortu du gizarte-desberdintasunak murriztea.
 - c. politika publikoak nahitaez aberatsenek zuzendu behar dituzte.

2. TESTUA:

Osasuna

Aitona-amonek ere hartuko dute lasaitua amaitzean. Asko sumatu baititut azken bolada luze honetan ohikoa baino zaintza-lan handiagoarekin. Semeak, alabak, suhiak edo errainak azterketa du, buru-belarri emana dago ikasteari, eta, denera iristen ez denez, umeak eta ez hain umeak aitona-amonei utzi beste irtenbiderik ez dute.

Osakidetzak inoiz egin duen lan-eskaintzarik handiena ipini du abian egunotan. Ia ehun mila lagun aurkeztu dira hiru mila lanpostutarako. Mediku, erizain, erizain-laguntzaile, zeladore... Asko lehendik lanean ari direnak dira, baina behin-behineko, orain hemen eta hurrena han, euren burua beti kolokan sumatuz. Adinez ere aurrera doaz, eta osatu dute familia bat. Badute nahikoa zama. Orain, lan egin, haurrak zaindu eta aldi berean ikastea tokatu zaie. Nekea, urduritasuna, haserrealdiak eta aitona-amonen laguntzaren beharra pilatu zaizkie. Osasuna galtzeko adina, alegia.

Osasuna osotasuna bada eta osotasuna oreka, zerbait gaizki egiten ari gara. Laster helduko da kasua behin betiko lanpostua lortzeko azterketara aitona edo amonak aurkeztuko direna. Eta bilobei eskatu beharko diete autoz eramateko, ez medikutara, mediku izatera baizik. Bilobak lanik gabe egongo dira, eta atseginez emango diete baiezkoa...

Andoni Egaña
BERRIA (2018)
(moldatua)

GALDERAK:

5. Testuaren arabera, noiz lasaituko dira denak?

- a. Familiako guzti-guztiek ikasten amaitzen dutenean.
- b. Dena inoren laguntzarik gabe egitea lortzen dutenean.
- c. Lan-eskaintzaren prozesua amaitzen denean.

6. Dirudienez, zein da benetako arazoa askorentzat?

- a. Egiteko asko elkartu zaizkiela aldi berean, eta ezin dutela denarekin.
- b. Dagoeneko ez dutela ikasteko adin egokia, eta gaixotu egiten direla.
- c. Beren burua ez dutela ondo ikusten duten lanpostuan, eta aldatu nahi dutela.

3. TESTUA:

Bihotza, bere burua birsortzeko gai?

Gure planetako lurralde aberatsetan, gutariko gehienak hiltzen gaituzten gaixotasunak kronikoak dira. Denbora luzea behar dute garatzeko, eta, sarritan, orobat behar dute denbora luzea gu hiltzeko, hartarako gai direnean. Har dezagun, esate baterako, bihotzeko gaixotasuna: batzuk onik irtenagatik hasierako krisitik, ez dira hala ere nahitaez itzultzen atzera lehengo bihotz-osasun erabatekoa izatera. Bihotzekoak jotzean, *kardiomiozitoetariko* batzuk —hots, bihotz-muskulua osatzen duten zeluletariko batzuk— oxigeno faltaz hil daitezke. Pentsa genezake, noski, hori ez litzatekeela inolako arazoa, ziur asko bihotza ordezeko zelulak sortzeko gai izango dela eta. Azken batean, odola ematen badugu, gure hezur-muinak zelula gorri gehiago fabrika ditzake. Orobat, kalte ikaragarriren bat egin behar zaio gibelari hura halako batean ez dadin gehiago gai izan bere burua birsortu eta atzera leheneratzeko. Bihotza, ordea, desberdina da. Kardiomiozitoen ezaugarritzat aipatzen da «muturreraino desberdinuak» izatea: Waddington mendiaren behe-beheraino etorri dira, eta sakonune jakin batean atxikiak daude. Hezur-muinak edo gibelak ez bezala, bihotzak ez du gordailu eskuragarririk espezializazio gutxiagoko zelulaz (zelula ama kardiakoz) osaturik, zelulok kardiomiozito berri bihurtu ahal izateko. Beraz, bihotzeko krisi baten ondorengo epe luzeko arazoa zera da: gure gorputzek ezin dutela fabrikatu bihotz-muskulua osatuko duen zelula berririk. Egin dezakeen gauza bakarra egiten du bihotzak, hots, kardiomiozito hilak ehun konektiboz ordeztu, eta harrezkero bihotzak ez du ordura arte bezala jotzen taupada.

Antzeko kontuak ditugu hainbat gaixotasunetan: gazteek 1 motako diabetesa garatzen dutenean galtzen diren zelula intsulina-jariatzaileak, Alzheimer gaixotasunean galtzen diren garun-zelulak, osteoartritisean desagertzen diren zelula kartilago-sortzaileak... luzea da zerrenda. Gauza ederra litzateke zelula berri, geureen berdin-berdinez ordeztu ahal izatea horiek. Hartara, ez genuke zertan borrokan ibili organo-transplanteak burutzea zailtzen duten errefus-kasuekin, edo emaile eskuragarrien faltarekin. Zelula amak modu horretan erabiltzeari klonazio terapeutiko esaten zaio: banako zehatz baten berdin-berdinak diren zelula batzuk sortzea gaixotasun bat tratatzearren.

John Gurdon-en lanak eta haren atzetik etorri ziren guztiek erakutsia ziguten zelula helduek badauzkatela gorputzeko zelula guztientzako aurre-diseinuak; eragozpen bakarra: haietarako sarbidea izateko modu egokia aurkitu behar.

Nessa Carey (itzultzailea: Ixiar Iza)

“Nola ikasi genuen mendian gora egiten” (pasarte hautatuak)

Epigenetikaren iraultza, ZIO 18

GALDERAK:

7. Testuaren arabera, planetako lurralde aberatsetan gaixotasun hilgarriek, ...
- a. kronikoak izan arren, azkenean hil egiten gaituzte beti.
 - b. kronikoak izan arren, azkar batean hiltzen gaituzte maiz.
 - c. kronikoak izanik, batzuetan ez dute lortzen gu hiltzea.
8. Kardiomiozitoak bihotzekoak jotzean...
- a. hiltzen diren zelula bakarrak dira.
 - b. hilez gero, ez dira birsortzeko gai.
 - c. sortzen diren ordezeko zelulak dira.
9. Testuari kasu eginez, adierazpen hauetatik zein da egia?
- a. Hezur-muinak, bihotzak ez bezala, badu zelula berriak sortzeko gaitasuna.
 - b. Alzheimerren eraginez hiltzen diren garun-zelulak birsor daitezke.
 - c. Bihotzaren antzera, gibelak ez dauka galdutako zelulak berritzeko modurik.
10. Testua oinarri hartuta, klonazio terapeutikoari esker...
- a. organo-transplanteetarako emaila eskuragarri gehiago dago.
 - b. errefus-kasuek arazo izateari uzten diote organo-transplanteetan.
 - c. organo-transplanteak egitearen aldeko borroka amaituko da.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez 250 hitzeko idazlan bat egin, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. Ongi lotu idazlana gai horri.

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta zure arloko edo intereseko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Zabalkunde-lanean ari zara (ez testu akademiko bat prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura eta hirigintza	Zertan datza eraikuntza gotikoa?
Artea	Artea Antzinatean	Arkitektura erromanikoa
Biologia	Bioteknologia: entzimak, antibiotikoak, bitaminak, polisakaridoak...	Gizakiaren eragina ingurumenean
Ekonomia	Barne Produktu Gordina (BPG)	Sistema kapitalista
Filologia	Hizkuntzalaritza-joerak	Literatura eta itzulpena
Filosofia	Sokrates eta auresokratikoak	Logika eta Logikaren Historia eta Filosofia
Fisika	Erradioaktibitatea: nukleoa, masa- eta atomo-zenbakia, isotopoak...	Termodinamika: kalorimetria, entropia...
Geografia	Atzerritarrak Europan gaur egun	Gaur egungo munduaren geografia ekonomikoa. Nola dago banatuta eta antolatuta mundua?
Geologia	Geologia eta ingurumena	Lurraren forma eta dimentsioa: sare geografikoak, kartografiak, topografiak...
Gizarte zientziak	Zer aztertzen du Soziologiak?	Katalunia bere etorkizunaren atzetik
Heziketa fisikoa	Jarduera fisikoa eta kirola guztiontzat	Taldeko kirolak
Historia	Frantziako Iraultza	Lehen Mundu Gerra
Informatika	Sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram...)	Hizkuntza naturala, sistema adituak, errobotika...
Informazioa	Konpara itzazu irratia eta telebista	Publizitatearen eragina
Kriminologia	Biziarako kartzela-zigorra	Segurtasun-kamerak nonahi?
Kimika	Zinetika kimikoa	Materiaren agregazio-egoerak
Lan-harremanak	Laneko osasuna eta prebentzioa	Lan-gatazkak: sindikatuen egitekoa
Matematika	Probabilitatea	Estatistika
Osasuna	Elikagaien piramidea: zer da, zertarako balio du, zertan desbideratu ohi gara hartatik.	Botikak noiz dira osasunbide; noiz arazo?
Pedagogia	Lanbide-heziketa	Ikasle autonomoaren garrantzia
Psikologia	Psikologia eta Biologia. Psikologia biologikoa.	Zein dira psikologoaren lan-esparru nagusiak?
Teknologia	Fabrikatze-prozesu mekanikoak	Domotika
Zuzenbidea	Berdintasun printzipioa	Hitzarmen kolektiboak

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: